

Rockaren alde gaizto eta makurrena



Demon Tales
Screamers and
Sinners

Nekrosound, 2013

ARRASATEKO inguruak aspalditik izan du lotura zuzena punk eta Oi! musikarekin. Azken estilo honen kasuan, 90eko hamarkada osoan kaskamotzen irla izan zen Arrasate; beste inon ez zegoelako halakorik, eta herri honetan berriz, mordoia. Gerora, halako taldeak ugaritu egin ziren eta oraindik ere harrobia badago. Baina azken urteotan musikan aritzen diren etako asko punk-rockera, folk kutsuko rockera eta beste estiloetara pasatu izan dira. Oro har rockaren baitako estiloen abanikoa handitu egin da nabarmen.

Horien artean, harrigarria eta pozgarria da psychobilly talde bat sortzea, Euskal Herrian halakorik ia aurkitu ezin delarik; zer esanik ez, hiriburuetatik kanpo. Jakina, Arrasate eta Aretxabaletako musikari hauek ez dira hasiberriak eta bakoitzak bere ibilbidea du atzetik: Aretxabaletako Neallta Fola street-punk taldea, Oñatiko Golpe de Estado punk-rock taldea eta rock instrumentala egiten duen Los Galerna talde arrasatearra, besteak beste.

2012an entseatzan hasi eta miresten dituzten Nekromantix, Mad Sin, Johnny Cash, The Torments, Gutter Demonds, Meteors, Social Distortion eta abarretik abiatuta, beren kantuak sortu zituzten. Hala, ia oharkabean Arrasaten, Bilbon, Madrilen, Berlinen... kontzertuak egiten hasi ziren. Eta berehala, taldea bera eta kantuak borobildu bezain laster, *Demon Tales* lan luze eta txukuna eman dute argitara biniloan eta CDan, Aretxabaletako Nekrosound estudioan grabatutakoa.

Psychobilly taldea izateko dena dute: deabruak gidatzen duen kontrabaxu frenetikoia, 50eko hamar-



JOSU TXINTXURRETA

kadako rock-and-rollaren gitarra riff berezkoenak, punkaren eta bateriaren ostia txarra, lurraspiko hitzak eta, batez ere, jarrera. Hala, emaitza sinesgarria eta indartsua lortu dute, bertakoak harritu dituzte eta kanpoan ere onespena jasotzen ari dira.

Baina diskoaren nabarduretan arakatzuz gero, hortik harago doa taldea: asko dauka punketik; horra hor, zuzenean taldeak duen indarra eta abiadura. Horretan zeresan handia dute taldekideetako batzuen aurrekariak. Eta, bestalde, taldeko bi partaide rock instrumentala egiten duen Los Galerna talde irudimentsutik etortzeak zeresan handia dauka kantuetan lortutako instrumentazio eta moldaketa aberatsetan zein saxoaren erabilera jantzian; hori ez da batere ohikoa halako taldeetan eta zeharo berezi egiten ditu.

Ingelesezt abestutako kantuen artean, bada psychobillyaren patroiak bete-betean dituzten pieza azkar eta ilunak (*Alien, Evil thrashmen, Fire in my head, My way...*); The Clash-etik edo punketik hurbil dauden pieza rocker-ak (*Willie the fisherman, Kendrick's psycho mansion...*); eta western kutsu handia dutenak (*Lonesome thief, Sarg surfen...*). Horrez gain, hillbillyarekin ere ausartu dira (*Little Jim*) RIP taldeko Julek banjoarekin lagunduta, eta dagoeneko hit izateko jaio den *Io io* kantuan swinga, 50eko hamarkadako rock-and-rola eta punka batu dituzte modu dotore eta bizi-bizian. ■

Iker Barandiaran

